



Arartekoaren ebazpena, 2012ko abenduaren 18koa. Horren bidez, Leioako Artaza parke publikoaren erabilerari dagokionez errespetatu behar diren zenbait arauen ez-betetzea salatzen zuen kexa baten inguruko esku-hartzea amaitu da.

Aurrekariak

1. Artazako parte publikoan kokatuta dagoen etxebizitza baten jabeak gure esku-hartzea eskatu zuen, bere ustez, etengabe urratzen ari ziren parkearen erabilerari lotutako zenbait arau daudelako.

Zehazki, salatu dituen arau-haustek motordun ibilgailuak (baimena daukatenen salbuespenarekin) eta txakur askeak parkean sartzeko debekuari buruzkoak dira.

Erreklamatzailerak kexatu zen toki horretan ibilgailuak denbora luzez egoten zirelako aparkatuta, baimenik gabe eta, gainera, gehienetan bidaiariak ibilgailuen barruan geratu eta bere iritziz gizalegezko arauen eta esparru publiko hori arautzen duten arauen aurkakoak ziren jarduerak gauzatzen zituztelako, hala nola, txakurrak lotu gabe uztea –azalpenaren arabera, horietako asko arraza arriskutsukoak dira-, euren gorotzak ez jasotzea, txiza egitea, hautsontziak hustea eta mota guztietako zaborra uztea. Hori gutxi balitz, auzotarrak esan zigunari jarraiki, hori guztia egunetan zehar egoten zen bertan.

Bere informazioarekin bat eginez, azken urteetan Udaltzaingora eta udalera jo du hainbat bider, arazoaren berri emanez eta aipatutako arau-haustek saihesteko kontrol neurriak ezar zitzaten eskatuz. Hala ere, adierazi zuen hainbat kexa aurkeztu dituen arren egoerak bere horretan jarraitzen zuela eta arazok konponbiderik gabe jarraitzen zuela. Ondorioz, azkenean, erakunde honetara jo zuen.

2. Kexa aztertu eta izapidetzeko onartu ostean, Leioako Udalera jo genuen erreklamatzailerak mahai gainean jarri zituen kontuen gaineko informazioa biltze aldera.

Udalak gure eskaera erantzun zuen Udaltzaingoak egindako txosten bat bidaliz. Horren bidez, agerian jarri zen polizia kidego horrek hainbat zailtasuni aurre egin behar diela parkeetan baimenik ez duten ibilgailuak sartzeko debekua errespetatzen dela kontrolatu ahal izateko. Kontrolari lotutako zailtasunak, zehazki, Udaltzaingoak baimena duten ibilgailuak zeintzuk diren ez dakielako gertatzen dira.

Debekuak hizpide duen bidea etxebizitzetako jabeena dela dioen hipotesia abiapuntutzat hartuta, konponbide posible gisa zera proposatu zen: bi aldeetan hesiak instalatzea, ibilgailuen sarrera galarazten dutenak.

Txostenean adierazten zenez, bidearen sarreretako batean seinale bertikal hau zegoen: “Dirección prohibida, excepto vecinos” eta beste aldean ez zegoela



seinalerik. Halaber, azaltzen zen sarreratik gertu etxebizitzak daudela eta horien parean aparkatzeko eremu bat dagoela.

Parkean txakurrak lotu gabe egoteko debekua ezarri duten arauei dagokienez, txostenak zioen Udaltzaingoarentzat oso zaila dela arau horiek betearaztea. Zehatz-mehatz, zera zioen: *"la restricción que figura en el Parque de Artaza, hace mención a que 'Se permite la presencia de perros, pero tienen que ir atados'. Esta referencia dificulta en gran medida el control, ya que en la mayoría de los casos, los perros van atados y de improviso sus propietarios tienen la capacidad de soltarlos o atarlos de forma rápida"*. Honako hau ere adierazten zen: *"el seguimiento que se hace en el lugar, va siendo 'a demanda' según los casos que son denunciados"*.

Horrez gain, txostenean adierazi zen parkearen segurtasunari lotutako eskumena Udaltzaingoa eta Ertzaintzarena dela.

Txostenarekin batera parkearen plano bat zegoen. Bertan, Udaltzaingoak kexa eragin zuten arazoak gertatzen ziren eremu zehatza mugarriztatu zuen eta, arazo horiei lotuta, 2001-2011 denbora tartean polizia kidego horrek burutu dituen jardueren eta haren esku-hartzea izan duten gorabeheren zerrenda gaineratu zuen. Eskaintako datuei jarraiki, 11 urte horietan zehar poliziak burututako esku-hartze gehienak -35 guztira- parkeko auzotarrek hala eskatuta hasi ziren eta ibilgailuak parkean sartzeko debekuarekin zerikusia zeukaten. Dena den, beste batzuek parkearen erabilerari lotutako jarduerekin eta esparru horretan txakurrak lotu gabe ibiltzeko debekuarekin zerikusia zeukaten.

Amaitzeko, txostenak zioen Udaltzaingoak jarraituko duela *"las vigilancias y actuaciones pertinentes"*.

Udalak eman zigun informazioak ez zuen parkean gauzatzen diren eta gizalegezko arauen eta erabilera erregulatzen duten arauen aurkakoak diren ustezko erabilera okerren gaineko arazoa jorratzen, hau da, erreklamatazaileak kexan salatu zuena hain zuzen ere.

Erakunde honen ustez, Udaltzaingoak emandako arrazoiek ezin dute baimenik ez duten ibilgailuak parkean sartzeko debekuaren eta txakurrak lotu gabe ibiltzeko debekuaren ez-betetzea justifikatu. Horrez gain, udalak, debekuak kontrolatze aldera legez esleitu dizkioten eskumenak gauzatzeari dagokionez, jarduerarik bideratu ez izana ere ezin da justifikatu.

Gure ustez, parkean sartzeko baimena duten ibilgailuak zeintzuk diren jakiteko - antza ez da horren zaila- identifikatzeko aukera ematen duten formulak erabil daitezke, hala nola, baimentzen duen txartela erakustea edo helburu hori lortzeko udalak egokitzen dituen beste edozein formula. Kontuan hartu behar da ez dagoela etxebizitza askorik, beraz, baimena duten ibilgailuen kontrola errazago izango da.





Gure ikuspuntuaren arabera, sarreran dagokion debeku seinalea jartzea ere lagungarria izan daiteke debekua benetan bete dadila. Izan ere, udaleko informazioaren arabera, sarreran ez zegoen seinalerik.

Lotu gabe dauden txakurrak parkean sartzeko debekua kontrolatzeari dagokionez eta helarazi zigun informazioa ikusita, ulertu genuen seinaleak eta debekua berak ez zeukatela inolako berezitasunik dagokion ordenantza arautzailean ezarritako araubide orokorretik aldentzen dituztenak xedapenen betetzearen kontrola eta bermeari dagokionez, beraz, horrek ez ditu Udaltzaingoak jakinarazi zizkigun kontrolatzeko zailtasunak justifikatzen.

Bestalde, gure ustez, udalak ez luke bakarrik esku hartu beharko herritarrek arau-hausteen ondoriozko salaketak jartzen dituztenean, horixe baita ondorioztatu ahal dena Udaltzaingoaren txostena ikusita. Izan ere, ematen du horixe izan dela polizia kidego horrek ordura arte erabili izan duen eredu, 2001-2011 denbora tartean parkean burutu diren jarduera zehatzen inguruan emandako datuekin bat eginez.

Udalari aurreko balorazioaren berri eman genion, kexak hizpide dituen arloetan dituen eskumenak gogora ekarri genizkion eta adierazi genuen, gure ikuspuntuaren arabera, eskumen horiek erreklamatzailerak salatutako egoera konpontze aldera egin zuen eskaera barne hartzen dutela. Hori guztia parkean dauden higiezin jabeakideen komunitateek arazoa konpontzeko bidera zitzaketen jarduerak kontuan hartu gabe. Horixe da baimenik ez duten ibilgailuen sarreraren arazoaren aurrean Udaltzaingoaren txostenak proposatu omen zuen konponbide bakarra.

Modu berean eskatu genion erreklamatzailerak aipatutako arauen ez-betetze etengabeek bere horretan jarraitzen zuten ala ez egiaztatu zezan eta, salatutako egoera baieztatuz gero, hori zuzentzeko eta urratutako arauen errespetua bermatzeko aukera ematen duten neurriak har zitzan. Aipatutako egiaztapenaren, horren emaitzaren eta, hala bazegokion, kexagileak salatu zuen egoera konpontzeko hartutako neurrien gaineko informazioa bidal ziezagun ere eskatu genion.

3. Gure eskaerari erantzunez, udalak Udaltzaingoaren beste txosten bat bidali zigun. Horrekin batera, zenbait argazki eta beste agiri batzuk helarazi zizkiguten.

Txostenean argitu zen etxebizitzetatik gertu pasatzen den bidea eta horien parean dagoen aparkalekua Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoak direla eta ez etxebizitzetan jabeenak. Berrito adierazi zuten bidearen sarreretako batean noranzkoa debekatzeko seinale bertikal bat zegoela eta bertan honako hau irakur zitekeela: "Auzokoak izan ezik/Excepto vecinos". Azaltzen zen beste aldean, beste seinale bertikal bat zegoela eta horretan "Prohibido acceso de motocicletas, bicicletas y animales sueltos/Debekatuta sartzea motorraz, bizikletak eta aske doazen animaliak" irakurri ahal zela. Argazkietan aipatutako seinaleak ikusi ahal ziren, bai eta zeharka aparkatzeko eremu bat ere. Hori, txostenaren arabera, *"es el principal problema que se suscita, en el sentido de que los vehículos superan la dirección prohibida antes citada, y a continuación estacionan"*.





Txosten horretan ez ziren jorratzen Udaltzaingoak baimena duten ibilgailuak identifikatzeko dituen zailtasunak. Hala ere, udalaren lehenengo erantzunean arazo hori debekua betetzen dela bermatzeko oztopo nagusitzat jo zen. Zailtasun horri aurre egiteko egin genuen proposamena ere ez zen jorratzen. Bi kontu horiek alde batera, utzita, proposamen berri bat egin zen, balorazio honetan oinarritzen zena *"integrar el aparcamiento en cuestión en los propios setos de la finca, solicitando a la Diputación Foral el relleno del estacionamiento con tierra. Se pretende que el vial y en toda su longitud, únicamente permita la circulación de vehículos y señalando ambos lados de la horizontal con raya amarilla; se denunciaría a cualquier vehículo que estacionara en dicho vial al considerarse entonces 'carril de circulación'"*.

Aparkalekuak kentzea toki horretan kokatuta dauden etxebizitzaren ikuspuntutik baloratu zen eta zera adierazi zen *"se entiende desde esta Policía Local que no tienen ningún problema por la eliminación del estacionamiento, ya que disponen de forma suficiente de estacionamientos propios en los alrededores de sus residencias"*.

Udaltzaingoaren txostenarekin batera, udaleko arkitektoaren txosten bat bidali zen. Horretan honako hau adierazi zen bidearen inguruan: *"Dado que esta calle no tiene otra finalidad que la de servir de acceso a los inmuebles enumerados en el párrafo anterior, puede tener sentido de que exista una señal de dirección prohibida excepto vecinos, pero es el Ayuntamiento quien deberá decidir si el tráfico queda reducido a vehículos autorizados o se trata de una vía de uso público a pesar de que sea de titularidad foral."*

Txakurrak lotu gabe sartzeko debekuaren ez-betetzeari dagokionez, txostenak azaltzen zuen Udaltzaingoak debekuaren berri ematen zuen informazio-ohar bat eman zela jasotzaile posibleei eta Herritarren Segurtasun eta Osasun Arloko udal arduradunek jabeen ordezkariarekin bilera bat egin zutela. Agerian jarri zen oharra eman ostean antzeman zela animalien kontrola hobetu zela eta gaineratu zen udalak *"está realizando distintas valoraciones y consultas al objeto de ver las diferentes posibilidades que se pueden dar (desde establecer un horario restringido para los propietarios de animales preferentemente en la franja nocturna, hasta otras opciones más innovadoras)"*, eta beste hau: *"se está realizando un seguimiento desde la Policía Local del uso del parque de Artaza, a la espera de una solución definitiva del problema"*.

Parkearen erabilera okerren inguruan, antza denez, parkean gurpildun ibilgailuekin sartzeko debekua urratuz sartzaren diren pertsonen gauzatzen zituztenak (hau da, ibilgailuak denbora luzez bertan aparkatzea bidaiariak barruan dauden bitartean, txakurren gorotzak ez jasotzea, txiza egitea, hautsontziak hustea eta mota guztietako zaborra botatzea) eta erreklamatzailerak salatu zituenak honako hau adierazi zen:

"El parque dispone en diversas zonas de puntos limpios para depositar desperdicios y basura, que son gestionados con bastante rapidez por los servicios de limpieza de la Diputación Foral..."



Entiende esta Jefatura de Policía Local, que para la extensión del parque y su geografía peculiar, la limpieza y mantenimiento es muy aceptable.

En cuanto a la posibilidad de que no se recojan las heces de los perros, esta policía local seguirá realizando una función vigilante como la que lleva a cabo en el resto del municipio.

La problemática que se expresa en cuanto: 'vaciar los ceniceros de los vehículos', esta Jefatura tiene que indicar que todos los viales internos del parque, son de uso exclusivo de peatones, no entrando ningún vehículo en el recinto. Con la mencionada explicación, se tiene que entender que el vaciado pueda estar ocurriendo en el aparcamiento descrito en el apartado 1º (c/ Basarte frente a los nº 6-8), esta acción también quedaría anulada al incorporar el aparcamiento como zona verde del parque según lo descrito anteriormente".

Udalaren informazioan ez zen ezer esan erreklamatzailleak salatu zuen egoera egiaztatu izanaren edo haren emaitzaren gainean, guk eskatu genuen moduan. Hala ere, ez zen ezein momentutan ukatu egoera hori gertatzen zenik eta horren inguruan kexan adierazitako guztia ez zen zalantzan jarri.

4. Erreklamatzailleari udalaren erantzunaren berri eman diogu eta adierazi du ez dagoela ados gaur egungo aparkalekua kentzeko proposatutako konponbidearekin. Era berean, azaldu du salatu zituen arau-hausteak ez direla aldatu kexa aurkeztu zuenetik.

Gogoetak

1. Trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen testu artikulatuak, martxoaren 2ko 339/1990 Errege Dekretu Legegileak onartu zuenak, bere aplikazio eremuan sartu ditu zirkulaziorako baliagarriak diren bide eta lursail publikoak, gaitasun hori ez duten baina erabilera komunekoak direnak eta, beste arau batzuk ez bezala, erabiltzaile multzo zehaztugabe batek erabiltzen dituen bide eta lursail pribatuak ere (2. artikulua).

Arau horrek udalei euren titulartasunekoak diren hiri-bideetan trafikoa antolatzeko eta kontrolatzeko, berezko agenteen bidez zainketa burutzeko, bide horietan egiten diren arau-hausteak salatze eta horien aurrean zigorra ezartzeko eskumena esleitu die, betiere, berariaz beste administrazio bati esleitu ez bazaio (7. artikulua).

Modu berean, Tokiko Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak hiri-bideetan ibilgailuen eta pertsonen antolamenduaren ardura udalen kargu utzi du.

Leioako hiri izaera duen bide publikoetako trafikoa, erabilera eta segurtasunaren antolamenduari buruzko ordenantzak aplikazio eremua zabaldu du eta erabilera,



komun, publiko edo pribatua duten udalerriko bide guztiak barne hartu ditu (2. eta 3. artikulua). Horrez gain, agintearen agenteek trafikoa zaintzeko eta trafikoaren araudi orokorrari eta ordenantza berari lotutako arau-hausteak salatzen duten betebeharrak azpimarratu du (155. artikulua).

Bai testu artikulatuak, bai ordenantzak, euren aginduen aurkakoak diren ekintzak eta ez-egiteak arau-haustetzat jo dituzte. Horien artean, debeku bat ezarri duten seinaleak ez errespetatzea dago (testu artikulatuaren 65. eta 53. artikulua eta ordenantzaren 148. artikulua).

Bestalde, ordenantzak xedatu du oinezkoentzako eremuak behar bezala seinalezatu behar direla (34. artikulua).

Aurrekarietan adierazi dugun moduan, Leioako Udalak berak eman dizkigun datuak ikusita, gure ustez, parkera baimenik ez duten ibilgailuak sartzearen arazoa udalerriko trafiko araudiak betetzen direla bermatzeko aipatutako xedapenek esleitu dizkioten eskumeneren eremuaren barruan dago.

Era berean, aurrekarietan adierazi dugu erakunde honen ustez, aipatutako esleipenek erreklamatuak udalari zuzendu dizkion eskaerak barne hartzen dituztela. Eskaera horiek udalak jardueraren bat bideratu dezan egin ditu, behin eta berriro salatu duen egoera konpontze aldera.

Udalak ez du ukatu esku hartzeko duen eskumena. Azaldu den moduan, hasiera batean ibilgailuak parkean sartzeko debekuaren ez-betetzea kontrolatzeko ezintasuna sartzeko baimena zeukaten ibilgailuak ezagutzen ez zituela argudiatuz justifikatu zuen eta, ondorioz, konponbidea etxebizitzetako jabeen esku jarri zuen, ulertu baitzen bidearen jabeak izan zitezkeela. Ondoren, jakinarazi zigun bidearen eta etxebizitzaren ondoan dagoen aparkalekuaren jabetza Bizkaiko Foru Aldundiarena dela, beraz, horrek proposatutako konponbidea baliogabetu zuen eta hasiera batean debekuaren kontrola bermatzeko agerian jarri zituen zailtasunak alde batera utzita, une horretan aparkalekuak kentzea proposatu zuen konponbide gisa.

Hala ere, gure iritziz, neurri hori ez da egokia parkean gurgildun ibilgailuak sartzeko debekua errespetatuko dela ziurtatzeko. Gogora ekarri behar dugu debeku horren ez-betetzea dela erreklamatuak salatu duen arazo nagusia; izan ere, gainontzeko arazoak ez-betetze horren ondoriozkoak dira.

Horrez gain, uste dugu erabilera publikoko oinezkoentzako eremu batean baimena duten ibilgailuek aparkatu dezaten erreserbatutako eremu bat ezartzeko edota bertan aparkalekuak kentzeko erabakia trafikoa antolatzen eta esparru hori erabiltzeko irizpideetan oinarritu behar dela eta erabaki hori ezin dela debeku bat errespetatuko dela bermatzeko neurritzat jo. Kasu honetan, debekuak baimenik ez duten ibilgailuei parkera sartzeko edo esparru horretan aparkatzeko ezintasuna ezarri die.





Udalak eman digun informazioaren arabera, aparkalekuak etxebizitzetan sartzeko bidean eta horien parean kokatuta daude, beraz, pentsa daiteke bertan bizi diren auzotarrei zerbitzua emateko jarri direla. Hori hala bada, argi dago aparkalekuak kentzeko erabakiak auzotarrengan eragina edukiko lukeela, Udaltzaingoak kontrakoa esan arren. Erreklamatzailleak berak baieztatu du besteen izenean aparkalekuak kentzeak auzotarrengan eragina edukiko lukeela.

Erakunde honek ezin du ulertu udalak baimenik ez duten ibilgailuak parkera sartuko ez direla ziurtatzeko baloratu duen neurri bakarra hau izatea: benetan baimena duten ibilgailuentzako aparkalekuak kentzea. Gure ikuspegiari jarraiki, neurri horrek praktikan kexagileari eta parkeko gainontzeko auzotarrei eragiten die eta ez dauka proportzionaltasun harremanik sarrera galarazteko debekua bermatzeko helburuarekin, nahiz eta hori izan neurri horrekin lortu nahi dena.

Halaber, ez dugu uste Udaltzaingoak baimenik ez duten eta parkera sartzen diren ibilgailuak salatu ahal izateko duen aukera bakarra aparkalekuen eremua kentzea denik. Hala ere, ematen du polizia kidego horrek horixe ulertarazi nahi duela esaten duenean aparkalekuak behin kenduta *"se denunciaría a cualquier vehículo que estacionara en dicho vial al considerarse entonces 'carril de circulación'"*. Udaltzaingoak sartzeko debekua betetzen ez duten ibilgailuei eta baimenik ez eduki arren parkean egoten diren (aparkalekuan edo beste edozein tokitan) ibilgailuei salaketa ezartzeko ahalmena dauka, beraz, gure ikuspuntuaren arabera, aparkaleku horiek kentzeak ez luke lagunduko.

Azaldutako guztia dela-eta, udalari eskatu behar diogu albait lasterren esku hartu dezan erreklamatzailleak salatu duen egoera konpontzeko, hau da, baimenik ez duten ibilgailuak parkera sartu ez daitezzen ezarritako debekua bete dadila. Horrez gain, debekua errespetatzen dela bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzan eskatu behar diogu, hala nola, bidea zaintzea, baimena daukaten ibilgailuak identifikatzeko sistema bat ezartzea, arau-hausteak salatzea, behar bezala seinaleztatua ez dagoen aldean debekua erakusten duen seinalea jartzea eta xede hori lortze aldera legezkoa eta egokia den beste edozein neurri.

2. Animaliak edukitzeko eta babesteko Leioako ordenantza arautzaileak jendetza biltzen den eremu publikoetan edozein espezieetako animaliak lotu gabe uzteko debekua ezarri du [12.2.h) artikulua]. Bertan jasotako betebeharrak, debekuak edo mugaketak ez errespetatzea arau-haustetzat jo du, bai eta hiri-esparru publikoetan txakurrak egokia den kate edo uhal baten bidez heldu gabe eta kontrolik gabe uztea ere [45.a), 28.1.a) eta 28.2.h) artikulua].

Ordenantzak udalari esleitu dio jasotako xedapenen betetzearen gaineko ikuskapena eta kontrola eta esleipen horiek Udaltzaingoaren edo udaleko beste funtzionario batzuen kargura utzi ditu (26.1. artikulua).

Gure ustez, arau horrek erreklamatzailleak lotu gabe dauden txakurrak parkera sar ez daitezten ezarritako debekua betearazte aldera udalari zuzendu dion eskaera barne hartzen du.



Udaleko informazioari jarraiki eta aurrekarietan azaldu den moduan, debeku hori beteko dela bermatzeko hartu diren neurriak hauek dira: debekuari buruzko informazio-oharra ematea eta txakurren jabeekin bilera bat egitea.

Erreklamatzailleak adierazi digunarekin bat eginez, neurri horiek ez dira erabilgarriak izan kebaren bidez salatu zen debekuaren ez-betetze etengabea konpontzeko.

Horregatik udalari eskatu behar diogu, alor horretan ere, ahalik eta azkarren debekua betetzen dela bermatzeko egokiak diren neurriak har ditzan, betiere, antolamendu juridikoak esleitu dizkion eskumenak gauzatuz.

3. Gizalegeari buruzko ordenantzak, Leioako eremu publikoa eta hiri-paisaiaren babesa arautzen duenak, araudiaren ondorioetarako, honela definitu ditu bide publikoak *"parques y zonas ajardinadas y demás bienes de uso público destinados al uso común general de los ciudadanos"*, beste esparru batzuen artean (4. artikulua). Herritarrek parkeak errespetatzeko betebeharra dutela ezarri du (14. artikulua). Hondakinak paperontzietatik kanpo botatzea debekatzen du, bai eta zelaian edo lorategietan gorotzak uztea ere [12.2.c) artikulua eta 14.3.g) artikulua]. Modu berean, bide publikoan txiza egitea eta txakurrek euren gorozkiak lorategietan edo bide publikoaren beste edozein tokian uztea ere debekatuta dago (19.1. eta 29.2. artikulua). Halaber, itzalitako zigarro-mutxikinak eta tamaina txikiko beste hondakin solidoak paperontzietan uzteko betebeharra ezarri du (21. artikulua).

Ordenantzak udaleko zerbitzuei esleitu die esparru publikoak garbitasun eta osasungarritasun egoera egokietan mantentzeko ardura. Era berean, xedatu du udalak dagokion zerbitzu publikoa eskainiko duela, beharrezkoa den intentsitatearekin eta berari dagozkion zainketa eta polizia funtzioak burutuko dituela (17. artikulua). Horrez gain, udaleko zerbitzuei eta Udaltzaingoko polizia-agenteei esleitu die garbiketen arloan herritarrek dituzten eginbeharrak une oro betetzen direla ziurtatzeko eginkizuna (18.3. artikulua).

Ordenantzak administrazio arau-haustetzat jo du ezarri dituen xedapenen ez betetzea eta debekuak urratzea (48. artikulua).

Horrez gain, arauak Artazako parkeari Pinosolo basoaren araubide bera esleitu dio –bertan, jatea eta motordun ibilgailuekin zirkulatzea debekatuta dago-. Hori guztia foru aldundiak erabilera arautzeko eskumena udalari eskualdatuko balio erabilgarri izango litzateke (14. artikulua).

Animaliak edukitzea eta euren babesa arautzen duen ordenantzak, bere aldetik, honako hau arau-haustetzat jo du: animalien jabeen eskutik bide eta esparru publikoetan utzitako gorotzak bertan geratzen direla saihesteko beharrezkoak diren neurriak hartzeko betebeharra urratzea (6.2. artikulua).

Erakunde honen ustez, aipatutako arauak erreklamatzailleak hizpide dituen alderdietan (ibilgailuak denbora luzez aparkatzea bidaiariak barruan dauden bitartean, txakurren gorotzak ez jasotzea, txiza egitea, autoetako hautsontziak



hustea eta mota guztietako zaborra uztea) arauak betetzen direla bermatu dezala udalari zuzendu zion eskaera babesten dute.

Horri dagokionez, aurrekarietan azaldu dugun moduan, udalak hauxe besterik ez du adierazi: parkean hondakinak eta zaborra uzteko gune garbiak daudela; oro har, parkearen garbitasuna onargarria dela eta Udaltzaingoak txakurren gorotzak bertan uzteko debekua betetzen dela ziurtatuko duela. Horrez gain, paperontzietatik kanpo hautsontziak hustearen ondoriozko arazoari aurre egiteko etxebizitzaren parean dauden aparkalekuak kentzeko aukera mahaigaineratu du. Hala ere, orokorrean ez ditu erreklamatzailerak aditzera eman zituen kontu zehatzak jorratu.

Gogora ekarri behar dugu kexan mahaigaineratu dena zera dela: ordenantzak jaso dituen xedapenen ez-betetzea adierazitako alderdiei dagokienez, ez gune garbi edo paperontzi nahikoak dauden. Izan ere, udalari dagokio horren betetzea bermatzea eta, horretarako, egokiak diren neurriak hartu beharko ditu. Horren harira, azpimarratu nahi dugu, gure ustez, neurri horien artean ez dagoela aparkalekuak kentzeko aukera. Dagoeneko adierazi den moduan, erreklamatzailerak baimenik ez duten ibilgailuen sarrerak aipatutako betebeharren eta debekuen ez-betetzeekin zerikusia duela uste du, beraz, ematen du argi dagoela lehenengo debeku horren betetzea kontrolatuz gero, aukera gehiago daudela harreman zuzena duen jokamolde hori desagerrarazteko.

4. Udalak helarazitako informazioa ikusita, halabeharrezkotzat jo dugu erreplikatzeko erreklamatzailerak zalantzan jarri dituen alderdiei dagokienez parkearen erabilera erregulatzen duten arauak behin eta berriro eta etengabe urratzen badira, udala ez zela mugatu beharko herritarren salaketan bidez mahai gainean jarri diren kasuetan jardutera; izan ere, jarduteko modu horren ondorioz herritarrek alde aurretik salatu diren egoeren gaineko salaketak jartzeko karga izango lukete eta udalak aipatutako arauak betetzen direla kontrolatzeko duen eskumena ez litzateke kontuan hartuko.
5. Azkenik, zehaztu beharra dugu, gure ikuspuntuaren arabera eta dagoeneko azaldu ditugun arazoak direla bide, erreklamatzailerak aditzera eman dituen arazoek ez daukatela herritarren segurtasunaren arloarekin zerikusirik, udalak alderdi hori aipatu zuen arren esan zuenean arlo horretako eskumena Ertzaintzarekin partekatzen dutela.
6. Azaldutako guztia eta Leioako Udalak administrazio horretara jo dugun bakoitzean kexaren inguruan erantzun diguna aintzat hartuta, gai horri dagokionez gure esku-hartzea amaitutzat jotzea erabaki dugu, betiere, honako ondorioen berri emanez.

Ondorioak

1. Leioako Udalak ez du ezein momentutan erreklamatzailerak mahai gainean jarri duen arazoan esku hartzeko duen eskumena zalantzan jarri eta ez du esan kexan salatu diren ez-betetzeak gertatzen ez direnik.



2. Gure ustez, kexan aipatu diren alderdietan dituen eskumenek erreklamatzailerak bidali dizkion eskaera anitzak babesten dituzte; izan ere, kexen helburua parkean baimenik ez duten ibilgailuen sarrerari buruzko debekua eta parkean txakurrak lotu gabe uzteko debekua betetzen direla bermatzea eta esparru horren erabilera erregulatzen duten arauak errespetatzen direla ziurtatzea besterik ez da.
3. Erakunde honen aburuz, udalak helarazi dizkigun arrazoiek ez dute justifikatzen aipatutako debekuen ez-betetzea, ezta udalak, legez esleitu dizkioten kontrol-eskumenen gauzatzeari dagokionez, jarduerarik bideratu ez izana ere. Halaber, uste dugu ezin direla justifikatu parkearen erabilera erregulatzen duten arauen aurka gertatzen ari diren gizalegearen aurkako jokamoldeak.
4. Udalak gurpildun ibilgailuei ezarritako debekua betetzen dela ziurtatzeko hartu nahi zituen neurriak helburu hori lortzeko desegokiak direla uste dugu. Gure ikuspuntuaren arabera, txakurrak lotu gabe ez ibiltzeko eta parkearen erabilera arauetara egokitzen dela bermatzeko abian jarritako neurriak ez dira nahikoak eta, dirudienez, orain arte ez dira baliagarriak izan kexa eragin zuen arazoa konpontze aldera.
5. Udalak al bait lasterren jardun behar du erreklamatzailerak salatu duen egoera konpontzeko eta horretarako beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu.

